

EGUZKIAREN ITZALPEAN

Mattin Etxebeste Sanzberro

Oiartzun

Begiak irekitzen hasi naiz, argi izpiak nire begietan islatzen dira eta zaila da irekita mantentzea, eguzkiak gure itzalak marrazten ditu lurrean. Hemen gaude, gosez eta egarriz, noranzkorik gabe, hankak hondar aleetan ezkutatuz aurrera eginez. Ez dut ideiarik ere norantz goazen, baina jakin nahi dudan bakarra da toki horretatik oso urrun egongo naizela eta ez dudala inoiz deus ere jakingo toki horri buruz. Shaira naiz, anaiarekin noa, herria atzean utzita, han bizitako momentu guztiak iraganean utzita. Tristurak betetzen gaitu horri buruz pentsatze hutsak, baina, ustez, onena egin dugu biontzat. Nigeriarrak gara, Katsina Jigawa izeneko herrixka batekoak.

Ez dakit non gauden, eguzkiak alde guztietatik jotzen gaitu, bero egiten du. Jende asko gara, eta denak pausoa eramanez ezinik goaz, erdi hilda, bakoitza bere munduan, deus ere entzuten ez dela, ez hitzik, ez soinurik; pausoak bakarrik. Guraso pila bat daude, baita umeak ere. Gure ondoan ama bat doa bizkarrean ume bat duela, baina haurtxo

horrez gain, beste alaba bat du, 10 bat urte dituela esango nuke. Nire gauzetan pentsatzen ari nintzela, nire aurreko gizonak buelta eman eta kontuz ibiltzeko esan dit, Nigerko mugara iristen ari garela azalduz. Eraikin handi bat ikusten da eta inguruan soldadu pila bat daude eremua zaintzen. Eraikin inguratzea erabaki dugu, geure buruak arriskuan ez jartzeko.

Eguzkiaren izpiek gero eta indartsuago jotzen dute, graduak gorantz doaz eta oso nekatuik gaude. Bidaia hasieran baino gutxiago gara, jendea atzean geratzen ari baita. Orain errepide batera iritsi gara, honen ertzetik goaz, esan digutenez, Malirako bidean. Tarteka kamioi gidari batzuk geratzen zaizkigu beraien borondatez kilometro batzuk saihesteko. Pixkanaka-pixkanaka, gure bidaia laburtzen ari gara.

Gosea dugu, egarria, logura... baina hementxe goaz, aurrekoari pausoa jarraituz. Malin gaude, toki ilun eta mespretxatua. Zaila izan da muga pasatzea, baina lortu dugu, kamioi baten barruan pasa dugu. Kamioiaren jabeak frutak zeramatzan: bospasei lagun, horien artean anaia eta ni, platanoen artean sartu gara; beste batzuk, berriz, kamioiaren azpian joan dira. Izugarritzko hotza egiten du kamioi barruan, arnasa hartzea ere kosta egiten zaigu, baina Malira pasatzeko modu bakarra da. Soinuak entzun dira eta anaiak esan dit mugan gaudela, atea ireki dituzte barruan zer zegoen ikusteko, geldi-geldirik egon gara bertan gaudela ez antzemateko. Emakume bat harrapatu dute eta

kamioitik bota dute indarkeria erabiliz. Garrasiak entzuten dira, gizonak esan die ez zekiela hor zegoenik eta pasatzen utzi diote. Ia 5 bat minutu igaro ondoren, platanoak motxiletan sartu eta kamioitik salto egin dugu, beste familietako kide batzuek bezala. Bide ertzera erori gara. Erorketa gogorra izan da, baten batek mina hartu du eta zauri larriak egin ditu. Orain deskantsatzen geratuko gara oso nekatuak baikaude.

Bukaezina dirudien bidean aurrera goaz, hankak sentitzen ez ditugula, pauso bat, eta beste bat, eta beste bat... burumakur, ezinean. Halako batean furgoneta bat entzun da, buelta eman eta gelditzen saiatu gara, ondotik pasa eta aurrera jarraitu du. Etsita, guk ere aurrera jarraitu dugu. Bat-batean kamioi bat entzun dugu, gelditzeko eskatu diogu keinuak eginez eta gelditu egin da, eraman gintzakeen galdetu diogu gidariari eta baietz erantzun digu zalantzati. Kamioi atzean sartu gara. Marokora zihoala esan du, eta ia bide gutzia kamioian egin dugu. Halako batean kamioia geratu egin da, atea ireki eta gidariak jaisteko eskatu digu, ia mugan gaudelako. Aljeriara sartzeko gutxi falta dela eta lurralde arriskutsua dela azaldu digu. Anaiak baimena eskatu dio bera eta ni joateko bere umeak bagina bezala. Erantzuna pentsatzeko denbora hartu ondoren, baietz esan du, ume batzuei lagun ziezaiekeela.

Aljeriako mugara iritsi gara, urduri jartzen hasi naiz eta anaiak, lasaitzeko, eskua hartu dit. Militarrak lerroan daude, armak esku artean dituz-

tela. Horietako bat hurbildu eta nortzuk garen galdetu dio kamioi-gidariari, berak esan du seme-alabak garela eta gero, beste batzuekin batera, atzera joan da zer dagoen begiratzera. Dena ondo dago eta pasa egin gara, eskerrak eman dizkiogu gidariari laguntzeagatik. Musika entzunez egin dugu bidea eta kantaz kanta Marokora iritsi gara. Marokoko mugan kamioia begiratu dute eta pasatzen utzi gaituzte, beste bidaia zati bat gelditzen zaigu, kostaraino iristeko. Bidaian gure iraganari buruz hitz egin dugu, baita etorkizunari buruz ere: anaiak eta nik Espainian bizi nahiko genuke, bertan lana egin eta familia osatu. Gure helmugara iritsi gara, Tangerang hirira, hemen Espainiara joateko ontziak daude eta horrelako batean joango gara. Gero eta gutxiago geratzen zaigu ametsa betetzeko.

Ontzian goaz, jende asko goaz, gehiegi, denak bizitza hobe baten bila. Ez dago lekurik ez mugitzeko ez ezertarako, ondokoak kantatzen hasi dira eta azkenean guk ere horixe egin dugu. Txalupatik Espainia ikusten da, gutxi falta da eta biok pozik jarri gara. Azkenean iritsi gara! Orduak, egunak, hilabeteak... eman ondoren, iritsi gara!

Txalupatik jaitsi eta berdez jantzitako gizon batzuek ikusi egin gaituzte, denak korrika sakabana-tzen saiatu dira, baina alferrik izan da, indar fisikoa erabiliz banan-banan hartu eta beste barku batzuetan sartu dituzte. Anaiak eta biok ere korrika alde egin nahi izan dugu, baina bat-batean gizon batek besotik heldu dit, anaia laguntzen saiatu den

arren, borra atera eta jo egin du. Biren artean barkura sartu gaituzte. Ez dakit nora doan barkua. Ondokoari galdetu diot eta esan dit behin baino gehiagotan gertatu zaiola hau eta berriro Afrikara bidaltzen gaituztela.

Orduan bidaia luze hau zergatik egin dudan pentsatzen hasi naiz eta malkoak sumatu ditut masailetan behera: ez dut amak duen bezalako bizitza eduki nahi: aitak jo egiten du edota bortxatu. Gainera, gerrak daude edonon, herrikideak elkarren kontra aritzen dira borrokan eta suntsiketak, zaurituak, hilotzak... ikusten dira bazter guztietan. Nik ez dut horrelako bizitzarik nahi, inork ez du horrelako bizitzarik nahi. Horregatik saiatzen gara bizitza hobe bat aurkitzen, bidean aurrera egiten; gogorra izan arren, oztopoak gainditzen. Baina helmugara iristean, berriro ere bueltan bidaltzen gaituzte.

Kuin